

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Trantsizio Digital eta Berdea dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2023 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Transición Digital y Verde para el año 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea Trantsizio Digital eta Berdea dirulaguntza-programa arautzea da 2023 urterako, eta horren helburua da Bizkaiko enpresek ekonomiaren eta giza garapenaren funtsezko bi erronkei aurre egin diezaietela bultzatzea. Erronkak hauexek dira: beren prozesuak eta produktuak digitalizatzea

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto regular el programa de subvenciones Transición Digital y Verde para el año 2023 cuya finalidad es impulsar que las empresas de Bizkaia afronten dos de los retos fundamentales para el desarrollo económico y humano: la digitalización de sus procesos y productos y la minimización





eta beren eragiketen eta produktuen ingurumen-aztarna minimizatzea.

de la huella ambiental de sus operaciones y sus productos.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du Bizkaiko enpresetan berrikuntza sustatzearen bidez lehiakortasuna hobetzeko proiektuen garapena finantzatzea, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen dira horiek gauzatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea. Dirulaguntzen lerro horren helburua da Bizkaiko enpresetan berrikuntza bultzatzea eta indartzea, eta aipatutako Plan Estrategikoaren helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, hau da, “Bizkaia, berritzailea eta lehiakorra”, honela: Bizkaiko enpresen trantsizio digital eta berdea lagunduz.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 del Departamento de Promoción Económica prevé una línea de subvenciones con destino a apoyar el desarrollo de proyectos de mejora de la competitividad a través de la innovación en empresas de Bizkaia y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora. Dicha línea de subvenciones tiene como objetivo impulsar y potenciar la innovación en empresas de Bizkaia y contribuye a alcanzar el objetivo estratégico del citado Plan Estratégico de una “Bizkaia, innovadora y competitiva” de la siguiente forma: mediante el apoyo a la transición digital y verde de empresas de Bizkaia.

Azken hamarkadetan, digitalizazioa eta iraunkortasuna funtsezko erronka dira garapen inklusiboagoa eta egonkorragoa lortzeko. Gainera, lehiakortasun faktore garrantzitsuak dira mundu globalean. COVID-19k sortutako krisi globalak agerian utzi du, halaber, biak direla datozen urteetan aurrera egiteko lehentasunezko bideak, eta, horregatik, Europako Batzordeak abian jarri duen Next Generation EU Europarako berreskuratze-planak adierazten du Europa ekologikoagoa, digitalagoa eta erresilienteagoa eraikitzea duela helburu.

En las últimas décadas la digitalización y la sostenibilidad se imponen como retos clave para conseguir un desarrollo más inclusivo y más estable. Son, además factores de competitividad clave para las empresas en un mundo global. La crisis global generada por la COVID-19 ha dejado también patente que ambas son las vías de avance prioritarias en los próximos años y, por ello, el plan de recuperación para Europa Next Generation EU que ha puesto en marcha la Comisión Europea indica que su objetivo es el de construir una Europa más ecológica, digital y resiliente.

Enpresak, bereziki enpresa txikienak, ahaleginak egiten ari dira digitalizazioaren arloan, administrazio publikoak bultzatzeko

Las empresas, particularmente las más pequeñas, vienen haciendo esfuerzos en el campo de la digitalización, apoyados por





programen laguntzarekin. Baina aldaketa digitala sakona da, eta Bizkaiko enpresa txiki eta ertain gehienek laguntza gehigarria behar dute benetako eraldaketa digitala egin ahal izateko.

Era berean, iraunkortasunaren, ekonomia zirkularraren edo aztarna ekologikoaren minimizazioaren aldeko apustua gero eta gehiago agertzen den sektorea da gizarteetan eta merkatuetan, baina enpresek zailtasunak dituzte beren negozio-eredua paradigma berri horretara egokitzeko. Erakunde publikoek garapen jasagarria susta dezakete, enpresetan trantsizio hori sustatuz.

Agerian da enpresetan digitalizazio- eta iraunkortasun-proiektuen sustapenari ez diotela behar bezala erantzuten laguntza publikoko programek. Trantsizio digitalari dagokionez, bereziki, teknologikoki oso sofistikaturik den digitalizaziorantz eta 4.0 industrierantz bideratutako ikuspegia hautematen da, eta praktika askotariko egoerak gertatzen dira, bai digitalizazioaren abiapuntuari dagokionez, bai enpresaren negozioarekin koherentea izango den digitalizazio handiagoa lortzeko urratsei dagokienez. Bestalde, trantsizio jasagarrian edo ekonomia zirkular eta aztarna ekologiko txikiko trantsizioan, energia sortzeko teknologia jakin batzuetara edo industria-prozesuen aldaketa teknologiko jakin batzuetara bideratutako programak hautematen dira, eta ez dago espektro zabaleko ingurumen-berrikuntzari lekua egin diezaiokeen

programas de impulso de las administraciones públicas. Pero el cambio digital es de profundo calado y buena parte de las empresas pequeñas y medianas de Bizkaia requieren un apoyo adicional para poder realizar una verdadera transformación digital.

Del mismo modo, la apuesta por la sostenibilidad, la economía circular o la minimización de la huella ecológica es un vector cada vez más presentes en las sociedades y en los mercados, pero las empresas tienen dificultades para adaptar su modelo de negocio a este nuevo paradigma. Las entidades públicas pueden fomentar el desarrollo sostenible, incentivando esta transición en las empresas.

Se ha detectado que el impulso de los proyectos de digitalización y sostenibilidad en empresas no está suficientemente bien atendido por los programas de apoyo público. En particular en cuanto a la transición digital se detecta un enfoque escorado hacia la digitalización tecnológicamente muy sofisticada y la industria 4.0, cuando en la práctica se dan situaciones muy variadas tanto en el punto de partida de digitalización como en cuáles deben ser los pasos para conseguir una mayor digitalización que sea coherente con el negocio de la empresa. Por su parte, en la transición sostenible o hacia la economía circular y de baja huella ecológica, se detectan programas enfocados a determinadas tecnologías de generación energética o hacia determinados cambios tecnológicos en procesos industriales, sin que exista un programa que pueda dar





programarik, enpresa txiki eta ertainentzako ekintza errealistekin eta ingurumena gehiago errespetatzen duen ekoizpen-eredurantz bidea irekitzen duenik.

Gainera, ikusten da enpresek laguntza eta gida behar dituztela digitalizazio handiagoa eta ingurumen-inpaktu txikiagoa duen negozio-eredu bat lortzeko urratsetan. Diagnostiko digitalak egiteko laguntza publikoko hainbat programa daude, eta horietako asko 4.0 industriara bideratuta daude. Nolanahi ere, badirudi eremu horiek sustatzeko programa batek enpresei eraldaketa digitaleko edo ingurumen-jasangarritasuneko ibilbide bat planteatzea ere eskatzen diela, beren abagunera eta negoziara egokituta.

Illo horretan, dirulaguntza programa hau enpresen ibilbide-orriak eta proiektu zehatzak bultzatu nahi ditu, beren produktuak, eragiketak eta negozio-eredua digitalizatorantz eta ingurumen-jasangarritasunerantz eraldatzeko.

Laguntza-programak lau laguntza-lerro baditu:

- 1) Digitalizaziorako (oinarrizkoa edo aurreratua) edo ingurumen-iraunkortasunerako planak garatzea
- 2) Oinarrizko digitalizazio-proiektuak
- 3) Digitalizazio aurreratuko proiektuak
- 4) Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuak

cabida a la innovación ambiental de amplio espectro, con acciones realistas para las pequeñas y medianas empresas y que abra el camino hacia un modelo productivo más respetuoso con el medio ambiente.

Se observa además que las empresas están necesitadas de acompañamiento y guía en sus pasos para una mayor digitalización y un modelo de negocio con menor impacto ambiental. Existen diferentes programas de apoyo público para realizar diagnósticos digitales, muchos de ellos orientados hacia la industria 4.0. En todo caso, parece que un programa de impulso en estos ámbitos exige favorecer también que las empresas se planteen un itinerario de transformación digital o en sostenibilidad ambiental adaptado a su coyuntura y a su negocio.

En este sentido, este programa de subvenciones pretende impulsar las hojas de ruta y los proyectos concretos de empresas de Bizkaia que transformen sus productos, operaciones y modelo de negocio hacia la digitalización y la sostenibilidad ambiental.

El programa de ayudas contiene cuatro líneas de apoyo:

- 1) Desarrollo de planes para la digitalización (básica o avanzada) o la sostenibilidad ambiental
- 2) Proyectos de digitalización básica
- 3) Proyectos de digitalización avanzada
- 4) Proyectos de innovación ambiental y economía circular





Ingurumen-jasangarritasunaren arloan digitalizazio- edo aurrerapen-plan bat edukitzea ez da baldintza gainerako hiru laguntza-lerroetako dirulaguntzak eskuratzeko, baina plan hori duten enpresek dirulaguntzaren intentsitate eta bolumen handiagoa eskuratu ahal izango dute, eta dirulaguntza gehigarria lortu ahal izango dute, proiektuan kanpoko eragile adituei laguntzeko eta enpresako plantillan teknikariak sartzeko.

Disponer de un plan de digitalización o de avance en sostenibilidad ambiental no es un requisito para el acceso a las subvenciones de las restantes tres líneas de ayuda, pero las empresas que dispongan de él podrán acceder a una mayor intensidad y volumen de subvención, y obtener subvención adicional para el acompañamiento de agentes expertos externos durante el proyecto y para la incorporación de personas tecnológas en la plantilla de la empresa.

II

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio ondoren aipatzen den arloko jarduna: enpresen lehiakortasuna hobetzea, bereziki enpresa txikiak, berrikuntza ardatz nagusitzat hartuta;

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en la mejora de la competitividad empresarial y especialmente de las pequeñas empresas,





industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jarduera esportatzailea laguntzea, eta enpresen arteko lankidetzak sustatzea].

teniendo como eje fundamental la innovación, el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia, fortalecer los servicios avanzados en conocimiento, impulsar el proceso de internacionalización de las pymes y el apoyo a la actividad exportadora, y la promoción de la cooperación empresarial.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezketasunari buruzko txostena.

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.
5. Informe de control económico.
6. Informe de legalidad.





Dekretu honen bidez arautzen diren 1. eta 2. laguntza lerro norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, beren izaera eta helburua kontuan hartuta; Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20 artikuluan aurrez ikusita dago prozedura hori.

Lerro horietan lagundu beharreko jarduketan izaerak zaildu egiten du balorazio-irizpide objektibo eta homogeneoak ezartzea, irizpide horiek aztertu eta sailkatu ahal izateko, aurkeztutako eskabideetan ordenatu eta lehentasun-hurrenkera bat ezarri ahal izateko moduan. Dirulaguntzen programa honetan lagundutako proiektuen izaerak epe luzea eskatzen du dirulaguntzak aurkezteko, eta azkar esleitu behar dira, emandako dirulaguntzari esker gauzatu ahal izateko.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako

Las líneas de ayuda 1 y 2 reguladas por este decreto foral se otorgarán atendiendo a su naturaleza y finalidad por el procedimiento de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

La naturaleza de las actuaciones a apoyar en esas líneas dificulta establecer criterios de valoración objetivos y homogéneos que permitan analizarlas y clasificarlas de forma que puedan ordenarse y establecer una prelación en las solicitudes presentadas. Así mismo, la naturaleza de los proyectos apoyados en este programa de subvenciones exige un plazo extenso para la presentación de subvenciones y celeridad en la adjudicación para que puedan materializarse gracias a la subvención concedida.

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005. En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado





eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la “Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia” aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, hurrengo erregelamendua dela bide: 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamendua, Batzordearena, zeinak zehazten baitu de minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua; eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (CE) n.º 1407/2013, de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis y el Reglamento (UE) 2020/972 de la Comisión de 2 de julio de 2020, por el que se modifica el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 en lo que respecta a su prórroga.

V

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la





ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Diru-laguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetakoa gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onetsi ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko apirilaren 4ko bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de promoción económica proponer este proyecto de decreto foral.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de promoción económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 4 de abril de 2023

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*





2023 urterako Trantsizio Digital eta Berdea dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

Se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Transición Digital y Verde para el año 2023 cuyo texto se incluye a continuación.

Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

Disposición adicional única. *Protección de datos de carácter personal.*

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/ EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la





egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

Xedapen iragankor bakarra. *Aurreko urteko Trantsizio Digital eta Berdea programa aplikatzea.*

2022ko Trantsizio Digital eta Berdea dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onetsi zituen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 26ko 58/2028 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko

solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión (“derecho al olvido”), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Disposición transitoria única. *Aplicación del Programa Transición Digital y Verde del año anterior.*

Los procedimientos de reintegros, procedimientos sancionadores, recursos, revisiones y cualquier otro incidente derivado de solicitudes presentadas al amparo del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 58/2022, de 26 de abril,





itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsioak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones Transición Digital y Verde 2022 serán resueltos conforme a lo establecido en dicho decreto foral.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Aurreko urteko Trantsizio Digital eta Berdea dirulaguntza-programa indargabetzea.*

Disposición derogatoria única. *Derogación del programa de subvenciones Transición Digital y Verde del año anterior.*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da apirilaren 26ko 58/2028 Foru Dekretua; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

A la entrada en vigor del presente decreto foral, queda derogado el Decreto Foral 58/2022, de 26 de abril, sin perjuicio de su aplicación a las situaciones creadas bajo su vigencia en los términos previstos en la Disposición transitoria única.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak eskuordetzea.*

Disposición final primera. *Delegación de facultades.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

1. Se faculta a la diputada foral de promoción económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación





presupuestaria.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onetsi den deialdiaren zatia.

1. Las bases reguladoras aprobadas por este decreto foral entrarán en vigor, una vez publicadas en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, el día que se publique en dicho boletín el extracto de la convocatoria que se aprueba conjuntamente.

2. Foru Dekretu honen bidez onetsitako deialdiak ondorioak izango ditu deialdiaren zatia “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen den egunetik aurrera.

2. La convocatoria aprobada por este decreto foral tendrá efectos desde el día que se publique en el “Boletín Oficial de Bizkaia” el extracto de la convocatoria.

Bilbon, 2023ko apirilaren 4an

Dado en Bilbao, a 4 de abril de 2023

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua/La diputada foral de Promoción Económica.
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia /El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ





TRANSIZIO DIGITAL ETA BERDEA
DIRULAGUNTZA-PROGRAMA
ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA
DEIALDIA 2023 URTERAKO

Aurkibidea:

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*
2. oinarria. *Definizioak*
3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

I. KAPITULUA **1. ildo: Digitalizaziorako eta ingurumen-iraunkortasunerako planak garatzeko dirulaguntzak**

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*
5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*
6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

II. KAPITULUA **2. ildo: Oinarritzko digitalizazio-proiektuetarako dirulaguntzak**

7. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*
8. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*
9. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

III. KAPITULUA **3. ildo: Digitalizazio aurreratuko proiektuetarako**

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE
SUBVENCIONES TRANSICIÓN DIGITAL Y
VERDE PARA EL AÑO 2023.

Índice:

TÍTULO I **Disposiciones generales**

- Base 1. *Objetivo de la subvención.*
- Base 2. *Definiciones*
- Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

CAPÍTULO I **Línea 1: Subvenciones para planes para la digitalización y la sostenibilidad ambiental**

- Base 4. *Hecho subvencionable.*
- Base 5. *Gastos subvencionables.*
- Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

CAPÍTULO II **Línea 2: Subvenciones para proyectos de digitalización básica**

- Base 7. *Hecho subvencionable.*
- Base 8. *Gastos subvencionables.*
- Base 9. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

CAPÍTULO III **Línea 3: Subvenciones para proyectos de digitalización avanzada**





dirulaguntzak

10. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 10. *Hecho subvencionable.*

11. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 11. *Gastos subvencionables.*

12. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 12. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

IV. KAPITULUA 4. ildo: Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako dirulaguntzak

CAPÍTULO IV Línea 4: Subvenciones para proyectos de innovación ambiental y economía circular

13. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 13. *Hecho subvencionable.*

14. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 14. *Gastos subvencionables.*

15. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 15 *Cuantía individualizada de las ayudas.*

V. KAPITULUA Aurrekontuko kredituak

CAPÍTULO V Créditos presupuestarios

16. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

Base 16. *Dotación presupuestaria.*

II. TITULUA Araubide juridikoa

TÍTULO II Régimen jurídico

17. oinarria. *Araubide juridikoa.*

Base 17. *Régimen jurídico.*

18. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.*

Base 18. *Órganos competentes y entidad colaboradora.*

19. oinarria. *Arau-haustek eta zehapenak.*

Base 19. *Infracciones y sanciones.*

20. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

Base 20. *Incumplimiento y reintegro.*

21. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

Base 21. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*





III. TITULUA Dirulaguntzak emateko prozedura

22. oinarria. *Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.*

23. oinarria. *Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.*

24. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

25. oinarria *Dirulaguntza emateko prozedura.*

26. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

27. oinarria. *Ebazpena.*

28. oinarria. *Errekurtsoak.*

29. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

30. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

31. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

32. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

33. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

34. oinarria. *Gauatzeko epea.*

35. oinarria. *Justifikazio-epea.*

TÍTULO III Procedimiento de concesión

Base 22. *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites.*

Base 23. *Documentación necesaria para la solicitud.*

Base 24. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Base 25. *Procedimiento de concesión.*

Base 26. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

Base 27. *Resolución.*

Base 28. *Recursos.*

Base 29. *Renuncia a la subvención.*

Base 30. *Modificación de la resolución de concesión.*

Base 31. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Base 32. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Base 33. *Notificación electrónica.*

TÍTULO IV Ejecución, justificación y control

Base 34. *Plazo de ejecución.*

Base 35. *Plazo de justificación.*





36. oinarria. <i>Azpikontrazioaren baldintzak.</i>	Base 36. <i>Condiciones de subcontratación.</i>
37. oinarria. <i>Dirulaguntzak justifikatzea.</i>	Base 37. <i>Justificación de las subvenciones.</i>
38. oinarria. <i>Dirulaguntza ordaintzea.</i>	Base 38. <i>Pago de la subvención.</i>
39. oinarria. <i>Laguntzak metatzea.</i>	Base 39. <i>Acumulación de ayudas.</i>
40. oinarria <i>Laguntzen bateragarritasuna.</i>	Base 40 <i>Compatibilidad de las ayudas.</i>
41. oinarria. <i>Pertsona onuradunen beste betebeharrak batzuk.</i>	Base 41. <i>Otras obligaciones de las personas beneficiarias.</i>

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

TÍTULO I

Disposiciones generales

1. oinarria. <i>Dirulaguntzaren helburua.</i>	Base 1. <i>Objetivo de la subvención.</i>
1. Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:	1. Mediante este programa de subvenciones se pretenden alcanzar los siguientes objetivos:
a) Bizkaiko enpresek oinarritzko digitalizazioa edo digitalizazio aurreratua lortzeko edo ingurumen-jasangarritasuna hobetzeko ibilbideak egin ditzaten laguntzea.	a) apoyar que las empresas de Bizkaia elaboren itinerarios hacia la digitalización básica o avanzada o de mejora en sostenibilidad ambiental.
b) Bizkaiko enpresen oinarritzko digitalizazioko proiektuei laguntzea.	b) apoyar proyectos de digitalización básica de las empresas de Bizkaia.
c) Bizkaiko enpresen digitalizazio aurreratuko proiektuei laguntzea.	c) apoyar proyectos de digitalización avanzada de las empresas de Bizkaia.
d) Bizkaiko enpresen ingurumen-berrikuntzako proiektuak babestea, ekonomia zirkularrarekin lerrokatuta.	d) apoyar proyectos de innovación ambiental, alineada con la economía circular, de las empresas de Bizkaia.





Nolanahi ere, azken helburua da enpresek lehiakortasun-posizioa hobetzea eta aztarna ekologikoa murriztea.

En todo caso, el objetivo último es que las empresas mejoren su posición competitiva y reduzcan su huella ecológica.

2. Programa hau lau dirulaguntza ildoren bitartez gauzatuko da:

2. La puesta en práctica de este programa se llevará a cabo a través de cuatro líneas de subvención:

1. ildo: Digitalizaziorako eta ingurumen-iraunkortasunerako planak garatzeko dirulaguntzak

Línea 1: Subvenciones para planes para la digitalización y la sostenibilidad ambiental

2. ildo: Oinarrizko digitalizazio-proiektuetarako dirulaguntzak

Línea 2: Subvenciones para proyectos de digitalización básica

3. ildo: Digitalizazio aurreratuko proiektuetarako dirulaguntzak

Línea 3: Subvenciones para proyectos de digitalización avanzada

4. ildo: Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako dirulaguntzak

Línea 4: Subvenciones para proyectos de innovación ambiental y economía circular

2. oinarria. *Definizioak.*

Base 2. *Definiciones.*

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

A los efectos de las presentes bases y convocatoria se entenderá por:

a) «Plana»: enpresak dirulaguntzen programa honen xede diren hiru eremuetako batean – Oinarrizko digitalizazioa, digitalizazio aurreratua eta ingurumen-berrikuntza eta ekonomia zirkularra – aurrera egiteko ibilbidearen proposamena, zeinak hobekuntza proiektuak jasotzen dituen. Plana egiteko, «oinarrizko digitalizazioko», «digitalizazio aurreratuko» edo «ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko» teknologia guztiak aztertuko dira, oinarri honetan jasotako definizioen arabera,

a) «Plan»: propuesta de itinerario de avance de la empresa en alguno de los tres ámbitos objeto de este programa de subvenciones – digitalización básica, digitalización avanzada e innovación ambiental y economía circular – que recoge proyectos de mejora. Para la elaboración del plan se analizará la aplicación de todas las tecnologías señaladas de «digitalización básica», «digitalización avanzada» o «innovación ambiental y economía circular», conforme a las definiciones contenidas en esta base, en todos los procesos principales de la





enpresaren prozesu nagusi guztietan. Planak egungo ekitaldirako hobekuntza-proiektu zehatzak eta hurrengo biak jasoko ditu. Proiektu horiek negozio-logikaren eta enpresaren heldutasun teknologikoaren mailara egokitzeko irizpideen arabera hautatuko dira.

2. «Emitzen Txostena»: planaren emaitzak jasotzen dituen dokumentua. Emitzen txostenak honako hauek hartuko ditu barne:

1) ahuleziak eta aukerak detektatzea.

2) hobekuntza-proiektu potentzialen eta haietako bakoitzerako alternatiba teknologikoen zerrenda.

3) proiektuak ebaluatzea eta hautatzea, negozio-logikaren eta enpresaren heldutasun teknologikoaren mailara egokitzeko irizpideen arabera.

4) proiektu bakoitzaren deskribapen zehatza, lotutako teknologiak barne.

5) proiektu bakoitzean beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak zenbatestea.

6) espero diren emaitzak eta enpresaren lehiakortasunaren hobekuntzak, proiektu bakoitzetik eratorriak.

7) proiektuak gauzatzeko denbora-aurreikuspena.

c) «Agente adituak»: enpresa eskatzaitetik kanpoko pertsonak edo erakundeak, dirulaguntzen programa honen xede diren hiru eremuetako batean - Oinarrizko

empresa. El plan contendrá los proyectos concretos de mejora para el ejercicio actual y los dos siguientes, que habrán sido seleccionados con criterios de lógica de negocio y de adaptación al grado de madurez tecnológica de la empresa.

b) «Informe de Resultados»: documento que recoge los resultados del plan. El informe de resultados abarcará:

1.º detección de debilidades y oportunidades.

2.º listado de potenciales proyectos de mejora y alternativas tecnológicas para cada uno de ellos.

3.º evaluación y selección de los proyectos, con criterios de lógica de negocio y de adaptación al grado de madurez tecnológica de la empresa.

4.º descripción detallada de cada proyecto, incluyendo las tecnologías asociadas.

5.º estimación de recursos necesarios, económicos, técnicos y humanos, de cada proyecto.

6.º resultados esperados y mejoras en la competitividad de la empresa derivadas de cada proyecto.

7.º previsión temporal de ejecución de los proyectos.

c) «Agentes expertos»: personas u organizaciones externas a la empresa solicitante, con amplio conocimiento y experiencia en alguno de los tres ámbitos





digitalizazioa, digitalizazio aurreratua eta ingurumen-berrikuntza eta ekonomia zirkularra – Ezagutza eta esperientzia handia dutenak, eta enpresa eskatzailearen negozio-ereduaren barruan hobekuntza-proiektu potentzialen egokitasuna aztertzeko gaitasuna dutenak. Agente adituek aholkularitza ematen diote enpresari plana egiteko.

Ezingo da loturarik egon agente adituaren eta enpresa eskatzailearen artean. Lotura dagoela ulertuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluan eta Merkataritza Kodearen 42.etik 49.era bitarteko artikuluetan ezarritako kasuetan.

d) «Oinarritzko digitalizazioa»: EIKT (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologia) hauetakoren bat ezartzea, bai tokiko instalazioa (on premise), bai SaaS (Software as a Service) eran:

1) Merkataritza elektronikoa: erosketak elektronikoa, salmenta elektronikoa, B2B (Business-to-Business) edo B2C (Business-to-Consumer) proiektuak.

2) ERP, Business Intelligence, CRM motako enpresaren kudeaketa aurreratuko sistemak, kudeaketa-sistemarako softwarea (kalitatea, ingurumena, laneko arriskuen prebentzioa, datuen babesa, legezko betetzea).

3) Ekoizpen-prozesuak kudeatzeko

objeto de este programa de subvenciones – digitalización básica, digitalización avanzada e innovación ambiental y economía circular – y con capacidad para analizar la idoneidad de los potenciales proyectos de mejora dentro del modelo de negocio de la empresa solicitante. Los agentes expertos asesoran a la empresa en la elaboración del plan.

No podrá existir vinculación entre el agente experto y la empresa solicitante. Se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 42.3 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre Sociedades, y los artículos 42 a 49 del Código de Comercio.

d) «Digitalización básica»: implantación de alguna de las siguientes TEICs (Tecnologías de la Electrónica, la Información y las Telecomunicaciones), tanto en instalación local (on premise) como en modalidad SaaS (software as a Service):

1.º Comercio Electrónico: compras electrónicas, ventas electrónicas, proyectos B2B (Business-to-Business) o B2C (Business-to-Consumer).

2.º Sistemas de gestión avanzada de la empresa tipo ERPs, Business Intelligence, CRM, software para sistemas de gestión (calidad, medioambiente, prevención de riesgos laborales, protección de datos, cumplimiento legal...).

3.º Sistemas de gestión de procesos





sistemak: MES, SCADA, GMAO...

productivos: MES, SCADA, GMAO...

4) Hornidura-katearen barne- eta kanpo-logistika kudeatzeko sistemak: MRP, SCM, SGA...

4.º Sistemas de gestión de logística interna y externa de la cadena de suministro: MRP, SCM, SGA...

5) Produktuaren edo zerbitzuaren bizi-zikloaren kudeaketa (CAM CAE, PDM, DMF, PLM, BIM motako aplikazioak ezartzea). Diseinu- eta kalkulu-aplikazioak.

5.º Gestión del ciclo de vida del producto o servicio (implantación de aplicaciones del tipo CAM CAE, PDM, DMF, PLM, BIM). Aplicaciones de diseño y cálculo.

6) Prozesu industrialen automatizazioa (PLC, CNC... bidezko kontrola), IoT (gauzen internet) elementuak prozesuen kontrolean sartzea.

6.º Automatización de procesos industriales (control mediante PLCs, CNC...), incorporación de elementos IoT (internet de las cosas) en el control de procesos.

7) Prozesu operatiboetako seinalak eta datuak integratzea enpresan, baita hainbat establezimenduren artean ere.

7.º Integración de señales y datos de procesos operativos en la empresa, incluso entre varios establecimientos.

8) Zibersegurtasuna.

8.º Ciberseguridad.

e) «Digitalizazio aurreratua»: EIKT (Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologia) sofistikatu hauetakoren bat ezartzea, bai tokiko instalazioa (on premise), bai SaaS (Software as a Service) eran.

e) «Digitalización avanzada»: implantación de alguna de las siguientes TEICs (Tecnologías de la Electrónica, la Información y las Telecomunicaciones) sofisticadas, tanto en instalación local (on premise) como en modalidad SaaS (software as a Service).

1) Adimen artifiziala, machine learning, deep learning.

1.º Inteligencia artificial, machine learning, deep learning.

2) Cloud computing / birtualizazioa, konputazio kuantikoa.

2.º Cloud computing / virtualización, computación cuántica.

3) Blockchain.

3.º Blockchain.

4) 3D simulazioa, planta-prozesuen eredu birtualak (biki digitalak eta errealitate hedatua barne).

4.º Simulación 3D, modelos virtuales de procesos de planta (incluyendo gemelos digitales y realidad extendida...).





5) Enpresaren balioa sortzeko prozesuen kontrol-datuak eta seinaleak integratzea, balio-kateko beste eragile batzuekin (hornitzaileak, bezeroak) egiten denean.

5.º Integración de señales y datos de control de los procesos de generación de valor de la empresa, cuando se realiza con otros agentes de la cadena de valor (proveedores, clientes...).

6) Pertsonaren eta makinaren arteko interakzio aurreratua: errealitate birtuala, errealitate areagotua eta mistoa, gamifikazioa, elkarlaneko robotika...

6.º Interacción avanzada persona-máquina: realidad virtual, realidad aumentada y mixta, gamificación, robótica colaborativa...

7) Sistema ziberfisikoak, IoT (gauzen internet)... azken bezeroarentzako produktuan, urrutiko datuen erabilera intentsiboarekin.

7.º Sistemas ciberfísicos, IoT (internet de las cosas)... en producto para cliente final, con utilización intensiva de datos en remoto.

8) Ikuspen artifiziala.

8.º Visión artificial.

9) IDSA edo GAIA-X metodologiak eta driver-konektoreak aplikatzea datuak prozesatzean.

9.º Aplicación de metodologías y driver-conectores IDSA o GAIA-X, en el procesamiento de datos.

f) «Zerbitzazioa»: manufaktura-industrien negozio-eredua eraldatzea; horren bidez, produktu fisikoak saltzetik produktu eta beren produktu fisikoetan integratu diren zerbitzuak osatutako “mix” bat eskaintzera eta merkaturatzera pasatzen dira. Muturrera eramanda, produktuen ordez bezeroen behar berberak asebetetzen dituzten zerbitzuak soilik jartzea.

f) «Servitización»: transformación en el modelo de negocio de las industrias manufactureras por el que pasan de vender productos físicos a ofrecer y comercializar un “mix” de productos y servicios que se han integrado en sus productos físicos, o incluso sustituir los productos completamente por servicios que satisfagan las mismas necesidades de los clientes.

